Joxean Sagastizabal

Zerura igotzeko

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1986 Joxean Sagastizabal
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1986ko uztaila
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

ESNEZ ETA AMORRUZ

– Entzule maiteok, egunon guztioi; egunero bezala hemen gaituzue zuei gaurko jarduna atsegingarriagoa egiteko asmotan. Oraintxe zortziak eta bost dira. Gaurko giroaz: Hotzberoa hamabost grado, lainotua eta seguru asko euria izango dugu laister. Besterik gabe lehenengo abestia, Bendito Letxugiren «Nere herriko tuntun nazkagarria».

Meteorologoak asmatzea harritzekoa izaten bada ere, hamar minuto hortxe-hortxe eta Jesukristoren zaparrada hasi zuen, baina...

– Esnea dela, esnea, proba ezazu!

– Aibala! Garai txoro honetan oraindik haundiagoak ikusi beharko ditugu!

Hura ikuskizuna! Erdi lotan lanera zihoan jendea eskuak ireki eta miazten hasi zen, dagoeneko lantegietan zirenak makinak utzi ta kalera, balkoi guztietan familiak azaldu ziren, andre askok landare-ontziak barrura sartzen zituen, umeak putzuetan irri ta algaraz, amona batek errosarioari ekin zion, txoriak, harriduraz mokoa

irekirik astindu egiten ziren behin eta berriz, katuak pozez zoratu beharrean edan eta edan. La leche zen hura! Ordubete gutxi gora behera iraun zuen, hiria benetan xelebre zegoen Andaluzia aldeko herri zurien itxura jantzi ondoren.

– Neretzat sobietarrak izan dira, espazioratzen dituzten satelite horietako batetik bota digute esne hau, betekadaz hil nahian edo, OTANen aurkako erasoa da, zalantzarik gabe.

– Ene ustez hor nonbait esne-biltoki ikaragarriren bat lehertuko zen eta haizeak honuntz ekarri du.

– Nik Jupiter aldeko behitzar bat izan dela esango nuke, errapeak urratu edo jeistean hutsegin eta plasta! Guri gosari hau!

Antzeko elkarrizketak izkina guztietan, baina egia esan inork ez zekien ezer. Esaten zen baita ere Jaurlaritza bilduta zegoela gertaera aztertzeko, urak (esneak) haien bideetatik abia zitezen. Txoko guztietan eztabaidatzen zen bitartean, sargori latz batek istorioaren bigarren atala ireki zuen; azkar asko yogur kirats jasan ezineko bat sagu zulo izkutuenetara ere zabaldu zen; maldi-

zioak aho guztietan eta jendeak Jupiterko behiaren amaz zituen usteak botatzen zituen.

Orduan ere zerbait serioago hasi zen igartzen; halako «esne txar bat» jabetu zen gizakumeez eta edozein txorakeria zela eta, istiluak, borrokak etabar piztu ziren; kolpe, ostiko, muturreko eta kaskarrekoek hitzak baztertu eta ordurarteko hiri lasaiak Dodge-City zirudien; «Orden Publikoaren» teoriazko zaintzaileek ere, gizakiak baita, egur ederra ematen zuten bazterretan.

Inguruko herrietatik berri kezkagarriak, behiak zeharo asaldatuak zebiltzan eta orru beldurgarriak boteaz aurrean suertatzen zen edonor hankaz gora uzten zuten, herritar gizajoek haien arteko saltsekin aski zuten arren.

Hiru, lau ordu pasa ziren eta zein baino zein haundiagoa, guztiek zauri edo ubelduraren bat zuten, begietan jartzeko xerrak agortu ziren, andreek, lehen sartutako landare-ontziak kalera jaurtikitzen zituzten haserrearen haserrez eta gainera ez zegoen inor erietxeetara eramaterik, sendagileak eta gaisoak egundoko guduetan ari zirelako.

Eguzkiak azkeneko esne-ttanttoa lurrundu zuenean bake giroa itzuli zen eta errenka eta aieneka denak etxeratu ziren, Jaurlaritzak telebistatik eman behar zuen komunikatua aditzeko.

«Herritarrak, dakizuen bezala azkeneko orduetan fenomeno harrigarri bat gertatu da, esne-euri bat, hain zuzen, eguneroko bizimoduan era guztietako arazo eta liskarrak sortu dituelarik. Esnea desagertu orduko iritsi zaigu zientzilariek emandako esplikazioa eta hauxe da: “Vía Láctea” deituan urradura bat sortu da eta hortik barneko likidoaren parte minimo bat irten eta gainera etorri zaigu. Diotenez zirrikito hori itxi da dagoeneko eta gauzak erabat normaldu dira. Nazioaren Jaurlaritzak...»

Betikoak errepikatuz bukatzen zen agiria.

Zer esanik ez, hurrengo hilabeteetan hizketagaia bakarra zen, ditxosozko euria, baina laister, bizimodu modernoak ezartzen duen estresak ahazterazi zuen hori ere. ....

– Hi! Ikusi al dituk laino gorri horiek?

Ardo euria ote?

FIK IRTEN EGIN ZUEN

Fik bi egun zituen, Mundua ezagutzen hasteko adinekoa zen, beraz. Bazeukan berak, bai, irteteko gogoa; hainbeste jende bizi zen etxean! Ezti usai horrekin ere nazkatu samar zegoen; erabakia hartuta, amarengana joan zen.

– Ama, hazi naiz, Mundua ezagutzera noa, abiatu baino lehen ezer esan nahi al didazu?

– Baina Fiii, egon zaitez beste egun bat gutxienez etxean, Mundua oso arriskugarria da gureeetzat, oso txikia zara, laztaaaana!

– Ez ama, bizitza bizitzeko da eta honez gero aspertu egin naiz zulo honetan, banoa eta kitto!

– Ooooh, zure aita bezalakoa zara, bai jauuuuna! Bueno, entzun, zu baino handiagoak diren animaliengandik ihes egin ezazu, danak ez dira etsai baina horixe da seguruena; txikiagoekin ez batere fidatu, kontuz gero hankak non jartzen dituzun, gal zintezke etaaaa; kontuz amaunekin, hitz batez, dituzun begi eder horiek erabil itzazuuuu, polit horrek, laister itzuli gerooooo!

Azkeneko hitzak ateruntz abiada osoan zihoala entzun zituen eta oaoo! Egun argia, bai zoragarria!

Erletegitik urrundu ala, gero eta alaiago zegoen Fi, horiek koloreak, usaiak, hori haize ederra, benetan xarmangarria dena!

Erne-erne zihoan, amak esandakoa gogoan, baina ez etsairik, ez lagunik... eh! Bi hanketako animalia ikaragarri bat hortxe, bi metrotara! Azkar asko ospa egin zuen Fik, baina ez ziola jarraitzen ikusita, laguna izango zelakoan, harengana bueltatu zen, egunon esatera edo; begiak ziruditenen artean jarrita, «kaixo» esan zion adiskidetsuki; ez du ba besteal hatzapar izugarri batez jotzen! Gizona, sudurraren aurrean erlea ikusita atzeraka hasi zen, eskuez aurpegia «monstruo» horrengandik salbatu nahian, zuztar batean endredatu eta plof! putzu batera erori zen.

«Arraia izango zen, bere burua uretara bota duelako, baina ez, lehorrez zebilen eta, noski! badakit, lurrez eta urez ibiliz gero igela, aitonak esan zidan, bai, zergatik ikaratuko zen? Igelak berdeak zirela, ba hau ez zen oso berdea, nahas-

tu egingo zen aitona, egun asko ditu eta, berdeak hostoak dira.»

Horrela, gogoetatsu, aurrera jarraitu zuen.

Gose eta egarrituta kala batzuk ikusi eta gogo handiz zurrupaka hasi zen, ahoa bete gora begiratu eta... itzal beltzak! Zer ote ziren? Kontu handiz muturra atera eta hegazti erraldoiak ikusi zituen; hotzikarak jota, kuzkur-kuzkur eginda, arnasa hartzen ere ez zen ausartzen, zorionez ez ziren gelditu.

«Beleak, edo hartzak, ez, hartzek ez dute hegan egiten, zozoak, ez enarak beharbada, buf! izenak badakizkit baina ez dut ezta bat ere ezagutzen!»

Berriz ere aurrera eta halako batean ingurua erabat aldatu zen, orlegi eta lasaia izatetik halako harritzar gris-marroi pilo bat izatera pasa zen, bi hankadun famatu horiek ehundaka gora eta behera zebiltzalarik. Erlearen sinestu ezina! Bi hankadun asko, gainera, etxetxo mugikor distiratsuetan zihoazen txistu eta zalaparta artean, hura saltsa!

Etxetxo urdin batera sartu zen eta animalia harrigarri horietako batengana inguratu, «Etxe-

txoa» furgoneta bat zen eta gidariak, erlea uxatu nahiz, gidagailua utzi eta espaloira igoz, orduko larogei kilometrotan, gutxi gora behera, «Triki-tri» zinemara sartu zen, zeinean «Autopistako borroka» botatzen zuten; jarlekuen artetik igaro eta pantailan iltzatu zen, pelikularen azkeneko eszenarekin bat eginez. Fi, hainbeste istilurekin eta bapateko iluntzeak larrituta, «ziuuuu» atera zen argiruntz.

Liluratuta irten zuen jendeak.

– Hori bukaera bizia daukana! Joé!

– Bai, miresgarriak dira gaurko efekto bereziak, furgonetak eragindako haizea sentitu eta dana egin dut nik!

Honez gero Fi irrikaz zegoen etxeko pakera bihurtzeko, baina... nondik joan?

Zer egin jakin ez eta negarrari ekin behar zionean hots leun ezagun bat belarriratu zitzaion.

– Amatxo!

– Fiiii! Nere umeeeetxo! Denbora guztian jarraitu egin dizut, dardar batean eduki nauzu, maitiiiiia!

– Goazen etxera, ama, Mundua handiegia edo ni txikiegia naiz eta!

EDANAREN KALTEAK

– Herritar maiteok! Ez ezazue honelako aukerarik gal! Hauxe duzue eta gaitz eta arazo guztien sendagarri! Burusoilari He mardul-mardula haziko zaio, erreumak jotakoak erbiak atzean utziko ditu, zimurtutako azalak hogei urteko neskaren freskotasunaz, hitz motela edozein politikoren trebetasunez mintzatuko zaigu, ilun, goibel eta jenio txarrekoa txiste, bertso eta kantuz hasiko da, ehun Udaberri ikusitako aiton-amonak trikitrixan dantzari! Hauek eta beste milaka, tanto batzuk edanda, ba al dago miresgarriagorik? Miloika botilatxo munduan zehar salduta, pakea eta alaitasuna txoko guztietan zabalduta, hementxe naukazue huskeria baten truke paradisuaren ateak zuei irekitzeko prest, hel iezaiozue datorkizuen zorteari!

Zulotxikitarrak aho zabalik herriko plazan, urtetan kanpotarrik ezagutu ez duen mendietako herriskan, gurdia botilaz beteta, beltzaren belarritakodun bat neke eta min guztiak konpontzera omen dator, hura hitz-jarioa!

– Hau duk hau, Joxe Migel, hire hanka hori sendatzen ez al duk probatu behar?

– Ez zekinat ba, hogei urtez errena izan naun, ederra izango litzateke, bai.

– Nik bazeuzkat ba azkazal makal hauek, gogortzea nahi niakek, erosi egin behar diat.

– Neuk erosiko dinat, ia gorreria kentzen zaidan!

– Hik, Juantxo?

– Zer?

– Ia erosi behar duan.

– Nola?

– IA EROSI BEHAR DUAN!

– Bai, badakin piska bat gorra nagoela ta...

– Ez duk asko aditzen, ez.

– Zer esan dun?

– GORRA HAGOELA!

– Hara! Esan ez dinat ba?

– BUENO; BOTILA BAT HIRURONTZAT, BALE?

– Bale.

– Bai, bai.

– Hi, zenbat duk botila?

Eta saltzailearekin ordu erdi bat tratuetan jardunez gero, txurrutada banaz botila hustuta

etxeratu ziren, edariak ehundokoak egingo zizkielakoan.

.....

– Lapur zikina, gezurti nazkagarria, bueltatu berehalaxe dirua eta ken iezadak kolore hau edo Jainkoak lagun, bertan txikituko haut!

Gure Joxe Migel, goitik behera urdin-urdina, pitufo baten itxuran.

– Hartzak hau eta hau, eta hau eta hau eta hau eta hau, eta esaidak nola moztu azkazal hauek edo xerrak eginda utziko haut!

Pagoetako Prantzizka, metro t'erdiko azkazalez hatzamarkaka saltzaileari.

– Aizue, trumoi hauek nere burutik ateratzeko esaiozue, baina zaratarik egin gabe, arren.

Hain ahopeka hitzegiten duena Juantxo da, Londresko Filarmonika Puntxiskinen 57garren sinfonian, molto alegro eta fortisimo eta ariyak borroka bizian buru barruan sentitzen dituela.

– Pakean utz nazazue, guztiz errugabea naiz, ah! Satanen herria, zerrikume alenok!

Eta sakeletik ateratako hauts gorriak bere burura boteaz desagertu zen, gurdi eta guzti.

Txingudean joz eta joz apurtu zizkioten azkenean azkazalak Prantziskari, bana utziaz, soroak goldatzeko bikainak ziren eta. Espartuz eta pomez harriaz igurtu zuten Joxe Migel, baina halere arrain ustelaren kolorea gelditu zitzaion.

Juantxori berriz, petardo bana belarrietan lehertuz baretu zioten sinfonia, zeharo gorra gelditu zen, baina.

ZINTZARRIAREN HOTSA

Zeru azpian sortu den ume bihurriena nor ote da? Galdera latza, baina neri galdetuko balidate, batere pentsatu gabe Liher Musugorri Txinpartabeitia dela esango nuke.

Atsoei koska egiten zien, (ez zitzaizkion batere gustatzen) baina ez zazpi urtetako mutiko normal batek egingo lituzkeenak, baizik eta adin berdineko Niloko kokodrilo sendo baten tamainakoak. Gaur ez bazituen hamabi litro olio Enparantza Nagusia doan aldapatxoan botatzen, lehengo asteazkenean egin zuen bezalaxe (bederatzi oinezko Gurutze Gorrira, berrogeitabost praka eta hemezortzi jertse garbitegira, bi erloju eta bostgarrenean bizi den Maria Luisak egindako erosketa guztiak zakarrontzira eta zeharo histeriko jarri zen goiko kaleko Koxmeren zakurra albaiteroarengana) sokak lotuko zituen espaloietan (horiek muturrekoak, horiek) jubilatuen elkartera «sua, sua» deihadar eginez sartuko zen edo San Isidroetako zezen-korridarako ziren adardun beltzak askatuko zituen, barrabaskeria

guzti hauek Josefa, bere ama gajoa, atzetik harrapatu ezinik zebilela, «etor zaitez hona» «ikusiko duzu gero» eta horrelakoak esanez. Seme bakarra izanik errita egiteko behar den kemena ez zuen inondik ere bilatzen eta aita pentsamendu sakonetan galduta bizi zen, liherrek egindakoez ezertxo ere jakin gabe; hola ez zegoen umea bide onera ekartzerik.

Hauxe zen egoera, halere lasaitzeko hamalau tila hartu zituen egun berean zerbait egin behar zela erabaki zuen Josefak:

«Egun guztian nere semetxoari segika ari naiz eta beti despistatzen nau, non den jakitea da kakoa, orduan jarraitu ahal izateko zerbait behar dut, baina zer? Nola? Horixe, badakit!»

Hurrengo egunean baserrian zuen lehengusuari idatzi zion, zintzarri txiki bat bidaltzeko esanez (zertarako behar zuen ez zion jarri, ez) eta ostiral hortantxe eskuetan zeukan eskatutakoa.

Lepotik zintzilikatu zionean Liherrek ez zuen purrustadarik egin, aitzitik, gustora zegoela zirudien eta tilin-tolon famatuak laister etxeko zoko guztiak bete zituen.

Ordu erdi bat geroxeago ulertu zuen, eritegiko bihotz gaisoen departamentuan ehun eta berrogeitazortzi armiarma iletsu barreiatu behar zituenean, amaren esku sendoak, zintzarri-hotsak gidatuta, belarritik heldu zion.

Pozez zoratu beharrean Josefa eta amorruz gaisotzekotan Liher, bere behatz txikiez ezin baitzuen inolaz ere zintzarriaren lokarri lodia askatu, lehertu arte jardunez gero etsi egin zuen baina burua pil-pil zeukan pentsaketetan.

Zorioneko egun hura bukatu zen eta zintzozintzo portatutako umea lotaratu zuen Josefak, musuka eta «nere seme polit eta zintzo hau» eta antzeko zurikeriak esanez; haurra onbideratua txit alai oheratu zen ama, buruhauste guztiak amaituta zirelakoan.

Goizean, alderik aldeko irribarrez Liher esnatzera joan zen Josefa.

– Nere azukre koskorra, ene aingerutxoa, Munduko ume maitagarriena, esnatu zaitez, potxolo!

– Muuuuuu!

– Lihertxo! Baina zer duzu? Esaiozu egunon amatxori!

– Muu, muuu, muuuuu!

Ohetik jetxi eta lau hanketan zebilela ikusi zuenean, tximista baino azkarrago atera zen Josefa sendagilearengana.

.....

– Ia ba, mingaina atera ezazu, Liher.

– Muuuu!

– Noiztik dago honela?

– Aiii jauna! Erru guztia nerea da! Nik jarri nion zintzarri madarikatu hori eta orain nere ume ederra eduki beharrean txekor bat dut!

– Atzo jarri zenion, ezta?

– Bai! Hortensiak jaten aurkitu dugunean! Arantzazuko Ama! Nere seme laztana!

– Ez diot ezer txarrik ikusten, zerbait sikolojikoa izan daiteke, ken iezaiozu oraintxe zintzarria.

.....

– Kaixo ama! Nor da gizon hau? Gosaria ipini didazu, ama?

– Liher! Nere bihotzeko haurra! Ez zara txahal bat, ez? Nere ume maitea! Mua, mua, mua.

Zintzarri itsusi hau ez dizut inoiz jarriko, oraintxe botako dut zakarrontzira! Deabruaren tresna!

HAIZEAK ERAMAN ZUENA

– Bai Furruntxo, ikusiko duk, kometa hau errez igoko duk ilargiaren parera.

Antton eta Furruntxo badoaz hiri inguruko zelaietara hegaldi zoragarriak egiteko prest; mutiko hau gogor ari da lanean datorren urteko kometa-txapelketa irabazteko asmotan.

– Uuum, abiada orduko hogeitazortzi, norabidea hegosortaldetik iparsartaldera...

Haizeaz ari da, txistuz betetako behatz erakusleaz aztertu ondoren.

– Laino beltz horiek ez zaizkidak batere gustatzen... e! Ken hadi hortik!

Furruntxo, animalien dena usaindu behar hori, kometa gainean dago eta... hori haize bolada zakarra! Hortxe joan zaigu zerura!

Ezin izan dio Anttonek hariari eutsi!

– Hire mutur zikin hori sartzeagatik begira non hagoen, jetxi hadi!

– Miaouuu!

– Furruntxo, bota hadi, besoetan jasoko haut!

– Marramiaoouuu!

Haizeak, ez begi, ez belarri, hiriruntz bultzatzen du eta atzetik Antton, bere maitiei segika.

.....

«Bai, seguru nago, noizpait hona azalduko zaizkigu».

Ambrosio Belaustegigoitia jaunak, ehun eta berrogei kilo haragi bi hanken gainean, Euskal Telebistaren «Ezezaguneruntz» programa famatua ikusi berria du, gaurko gaia «Lurretik haruntzko bizitza» zen. Hura plater hegalari, gizontto berde eta gorri, izaki xelebre pila ikusi duena! Andeetako sumendietan baseak dituztela, gure artean dozenaka dabiltzala, gizakume eta animalien itxuraz azaltzen direla... zeharo larrituta utzi du ikusitakoak.

– Martetarrak, martetarrak, badatoz, hementxe dira! Rosa Mari, Rosa Mari!

Emaztea tarrapataka dator.

– Zer da? Zer da?

– Argazki makina, non dago argazki makina?

– Hortxe, zertan ari zara?

– Martetarrak, famatuak izango gara, lehenengo argazkiak, a ze dirutzak! Adiskidetuko gara, ikusiko duzu, hau suertea!

– Martetarrak? Telebista gehiegi ikusten duzu!

– Etorri, etorri.

– A ver, a ver.

– Miaoouuu!

– Gu lagunak, lagunak, hau Lurra, ni Ambrosio, ulertzen?

– Gizona, hau katu bat da!

– Bai zera! Eta katuak noiztik datoz zerutik? Tuntuna, ez al duzu espazio-untzia ikusten ala?

– Zer? Zera gorri hori? Niri kometa bat iruditzen zait.

– Bai! Eta ni Anbotoko sorgina! Lagunak, argazkiak, zu, nongoa?

– Fuufff!

– Atea jo dute...

– Furruntxo!

– Miaoouuu!

– Mila esker jasotzeagatik, gero arte!

– Katu bat! Baina nola liteke? Noiztik ekin diote kometan ibiltzeari?

Besaulkian eseri zen, honi hiru hanka puskatu zitzaizkion, ipurdiko ederra hartuta, etsi-etsia, zerura begira gelditu zen.

ZERURA IGOTZEKO

– Kalean gooora, kalean beeeheera, kalean gora zezena, aiaiaiai! Kalean gooora... uzta ona hirurogeitahamazazpikoa, bai jauna! Gluk-gluk, kalean beeehera, ka... ui ama! Euria! Urik? Ez, eskerrik asko!

Traaak!

– Lurrera, Felix!

Ez pentsa lagun batekin doanik, ez, normalean Felix bakarrik ibiltzen da, bere burua eta botilarekin hizketan.

– Baina... Getariko txakolina! Zer da hau? Tximista ondo-ondoan erori da, baina hortxe dago, tente, zerua eta lurra lotuz, marmolezko soka baten irudi. Ardoaren miraria?

– Hementxe zegok, hi! Hau gauzie!

–Ikutzen du, igurtzen du. Nola da posible hau? Zergatik ez da plaf! Desegin?

Gora begiratu eta beste muturra laino batean sartzen da, han goian.

– Mutil zintzoa naiz, bestela igoko nintzatele aingerutxo bat harrapatzera...

Aupa! Botila poltsikoan sartu eta zerurako bidean jarri zaigu. Munduan egindakoaz ez omen da gehiegi fidatzen eta ez du Azken Epaiketa arte itxoin nahi.

– Buuuuf! Txindokira igo nintzenean ere holaxe ibili ninduan! Gogor Felix, gutxi falta duk eta!

Azkenean iritsi da, izerditan blai.

– Hau duk hau paisajea! Gluk-gluk, non ote da jendea? Baina e! Tximistak jarraitu egiten dik haruntza...

Segi eta segi eta halako batean gizon distiratsu bat, txingude batekin borrokan ikusten du.

– Infernuko txingudea! Askatuko al duk?

– Kaixo, jauna!

– E? Nor haiz hi, zarpatsu hori?

– Felix, eta hi, distiratsu hori?

– Kontuz, zomorro ardozale, ni Thor nauk, aditzen? Sumindura eta trumoiaren Jaun ikaragarria!

– A bai? Ba ni Felix nauk, tabernarien zigor errukigabea!

– Nondik hator? Nola iritsi haiz hona?

– Errez, hik jarritako tximista-eskailera horretatik.

– Aski! Jakin ezak! Sutegi honetan sortzen dizkiat tximistak, eta gero hemen azken ikutuak ematen zizkieat, mailuka. Hau botatzera nindoa-la abiatu egin zaidak eta txingudean kateatuta geratu, ikusten?

– Hau ganora hirea! Langabezian ikusten haut!

– Isil hadi, alua! Lagun iezadak!

– Bueno, baina hemendik aurrera tximistarik ez nere inguruan, eh?

– Bale, hitza ematen diat, heldu!

– Bat, bi eta hiru, eup!

Zas! Ziztu bizian abiatu da, baina... itsatsia gelditu da Felix!

– Jo, jo, jo! Agur zomorro, hurrengo arte!

– Amaaaa! Hau kaskarrekoa hartuko dudana! Gainera puskatu egingo zait botila! Banoaaaa!

Beheraka azkarrago zihoan lehenago goraka baino. Xanti, noski, parean suertatu zen.

– Auuuj! Baina zer... Felix! Hik izan behar!

– Ouuu... puf... arratsalde on, Xanti.

– Zer? Tente nazkatu eta koltxoitzat hartu al nauk?

– Ez, bueno, espljkatu egingo diat, tximistatik igo ninduan zerura eta...

– A! Zerura tximista batetik, ederki, ederki, eta?

– Ez zuen ematen sinisten zuenik, auskalo zergatik, batzutan sinesgogorra izaten da jendea.

– ...han Thor huen, badakik, trumoiaren jauna...

– Bai, sinisten diat, ni gaur hegaka joan nauk lanera, ibiltzeko gogorik ez eta...–parrari eusteko ahaleginetan ari zen Xanti.

– O! Hau suertea! Ez zaidak botila puskatu! Gluk-gluk... tragoskada bat, Xanti?

– Ekartzak, hik beste norabait aldegin baino lehen edan beharko diat eta...

– Ez didak sinesten, eh? Egon hadi, mozolo! –eta erronka itxuretan jarri zitzaigun, lainoei begira.

– Hi, Thor, distiratsu zaharra, atera ezak hire mutur zikin hori, alua!

Erantzunik ez, hitzezkorik behintzat, Xantik irriparrez begiratzen zion jainkoak ezagun omen zituen lagunari.

– Lerdo horrek lo hartu dik, babu alena!

Eraso egin zion zeruak, tximista-zaparrada itzel bat gaineratu zitzaien.

– Jaaah! Ikusten, Xanti? Ikusten? Haserretu egin zaiguk! Thor! Desastre! Traktore-izena edukiz gero zer egiten duk hor goian? Sinsorgo!

Tximisten artean, saltoka eta korrika ospa egin zuten bi lagunek. Hala behar, Jainkoak batere umorerik gabekoak baitira, zenbat eta gorago... ipurdia ageriago.

MAITEAREN TRAIZIOA

Zientifikoki gizakiok «homo sapiens-sapiens» omen gara (bakarren batzuk ikusita «sapiens» hori behin esanda ere gehiegi iruditu arren) horregatik, eman dezagun, martetar batek guretako bat aurkeztu beharrean (Marte-n dudarik gabe, hain ugariak diren Zientzilari-Batzar Nagusi horietako batean) horrelako zerbait esango luke: «Homo sapiens-sapiens», «X» arrazakoa, «Y» lurraldetakoa, izen-abizenak, Urlia.

Alperrikako jarioa, halere, gure protagonista kakalardo bat delako. Egin dezagun aurkezpena: Zomorro, «errinozeros-kakalardus» espeziekoa, azpi-espeziea «kakazaleak», izena «Mejde».

Horixe zen, bada, Mejde, errinozeronte-kakalardo bat, arra, gorotzez baloiak egin eta bultzaka joaten diren horietako bat. «Mejde» ezizena zen, famili horretan belaunaldiz-belaunaldi seme zaharrenak eramaten zuena, oraingo honen arbaso bat han iparraldean nazkatu eta behe-alde hauetara iritsi zenetik. Ezizena zeratik omen ze-

torren, aspaldiko honek haserretzean «méjde» besterik ez omen zuen esaten eta...

Mejde eta familia mendialdean bizi ziren, zaldi-saldo baten ondoan, hauek beraien hornitzaileak zirelako. Aspalditxoan Mejde berak egindako apartamentu txiki baina txukun batean bizi zen, gurasoen etxetik oso gertu. Hauek, gurasoek eta gainerako seme-alabek, lurrean egindako zulo batetan zeukaten bizilekua, era tradizionalean. Mejderen apartamentuak bazuen deigarririk, babesa emateaz aparte jan zitekeen, kakazkoa zelako, eta gainera denon iritziz gorotz goxoenak egiten zituen Mari Lurdes behorraren materialez eraikitakoa, kategoriakoa, beraz.

Poeta den eta ez den jende askorentzat ez dago egunsentia baino gauza ederragorik. Eguzkia bizitza da, eta gu existitzea posibilitatzen duen izar maite hori edertasunez inguraturik agertzen zaigu, batez ere egunsenti eta ilunabarretan, egunaren puntetan. Gu ernarazteaz gain ikuskizun zoragarriak eskeintzen dizkigu, eskuzabala da, beraz. Mejdek eguzki berezi-berezi bat zuen, bero eta janaz hornitzea, bizitza posibilitatzearen lanak, era askoz zuzenago batez,

begien ikusgarri, burutzen zituena: Mari Lurdesen ipurtzuloa. Behorrak haren buztan euli-uxatzailea jaso orduko pozak aidean Mejde, zeina aberearen atzeko hanken artean kokatzen zen zerutiko «mana»ren zai eta hau mordo sendotan lurreratzean inor baino lehenago oldartzen zen mokordo lurruntsuetara. Hantxe zegoen kakalardo batek desiatzen duen guztia gozo eta oparo, zoriontasunik errealena. Mejdek, ahoa jaki epelez gainezka, txilipurdika iharduten zuen kakazko paradisuan, txof murgildu, adarraz apurtu, goraka bota euri preziatua bihurturik gainera joan zekion... Gero, dozenaren bat juntaturik hasten zen festa, ia nork jaso puskarik handiena, elkarri bota algaretan, bazen ere bolatxo bat eginik ekilibrio eta piruetetan ibiltzen zenik. Bestalde, ba al zegoen kuttunarentzako erregali hobeagorik? Mejdek bazuen maiteño bat eta haien arteko ohizko erreberentziez mokaurik tentagarrienak zerbitzen zizkion grazioski. Azkenean biba Mari Lurdes, biba gu, aupa kakalardoak etabar. Mari Lurdes berriz ez zen enteratu ere egiten berari eskertu beharreko alegrantziaz, larre-

tzeari jarraitzen zion gero txikien altxor bihurtuko zena irentsiz.

Mejdek maiteñoa bazuela arestian aipatu dugu, Trotza izeneko panpoxa bat, baina hau asko maite bazuen ere Mari Lurdesekikoa... puf! Maitasuna, esker ona, lilura, batu eta nahasten zituen sentimendua zen, behorra behin ez zela konturatuko jakiteak arantzatxoa eragiten bazion ere. Ez, tamainaz bera milaka aldiz zen animalia maite hark ezin zuen eduki sentimentuon berri, eta edukiz gero ere, zer eskein deizaioke kakalardo batek behor bati?

Maitasuna gauza txit delikatua da, klabe izkutei erantzunez erne, hazi eta denbora luzean iraun dezakeena, baina gertaera askok jar ditzake dantzan etxe honen pareta kraskagarriak.

Mejde zoriontsu bizi zen Mari Lurdesen babespeko, belar txarren bat tartekatu egin zenean, eta, izan ere, ez dago maitearen traizioa baino ezer mingarriagorik.

Mari Lurdesek zeremonia betiko moduan hasi zuen egun hartan, buztana jaso, hankak zabaldu, Mejde erne eta alaitasunak kili-kili zai zegoela. Zulotik egunerokoa agertu zen baina ez egu-

neroko eraz, berazko itzela zeriolako ipurdi sakratuari. Mejde, bete-betean harrapaturik, aspaldiko istorioek deskribatzen zuten euri-jasa izugarriaz gogoratu zen, kakalardo-bikote bat ezik (Kakadan eta Gorotzeba) beste guztiak garbitu zituena. Naufragoak ez zekien igerian eta maitearen barruen emaitzak itotzear zegoen, akabatzen den izakiaren larritasunari traizioak eragindako mikaztasuna gehitzen zitzaiolarik. Une ezin larriago horretan osaba Alfontsok (arkamelu bat) ateratzea lortu zuen «pikado» arriskugarri bati esker.

Gorputza, ondo jipoituta ere, libratu egin zen hondamenditik, baina izpirituak jasotako egurra ez zen nolanahikoa. Ez zegoen Mejde kontsolatzerik, Trotzaren mimo amultsuek ez zuten suspertzen, zerbait puskatua zeukalakn erraietan.

Bihotzak sufritutako zauriak Denbora osagileak sendatzen ditu ederkien. Laister birrekin zion Mejdek eguzki berriak bilatzeari, berriak zeragatik diot, Mari Lurdesengana ez zen inoiz itzuli, maitasun-ogenak barkagaitzak direlako.

EZ GENUEN BATERE LORIK EGIN GAU HORRETAN

Bat beltza izatea falta zen, besterik ez, bestela nork ukatu hiru gizon xelebre haiek Errege Magoak zirela?

Arratsaldea badoan orduan azaldu ziren, argiak eta beroak aldegitearekin batera zaldi hotsari segika heldu zitzaizkigun, Andres eta bion lehorteari buruzko jarduna bukeraziz. Ez da normalean, Ihauterietan ezik, horrelakorik ikusten, gure alde honetan, behintzat. Zaldun haiek ez zuten mundu honetakoak ematen, haien kapa izardunak, haien ator ikusgarriak, zaldien maiestate hura! Handitasun guzti hau, berriz, parregarri gertatzen zen mailutzar ale hura ikusita, hiru bat metrotako kirtena zuen mailu erraldoi bat zeramatelako gurdi antzeko batean, kirtenak gizon seudo baten tamainako buru bati eusten ziolarik.

– Arratsalde on, adiskideok –esan zigun itxuraz mandataria zenak, zaldiak ere irrintzi alai batez agurtu gintuen.

– Baita zuei ere –erantzun genuen aho batez, erdi liluraturik, erdi fidagaitz, erdi txunditurik. Bat eta erdi, beraz.

– Hi, Rafa –Andresek ahopeka– ez dituk bada inguruko herriren bateko alu batzuk izango?

– Ez –gizon haiek ez zeukaten ingurukoen tankerarik–, gu nekazariak gara, lurra eta eguzkiak markatu egiten gaituzte, seguru nago edozein herrialdetako nekazariei igarri egingo niela, bizimodua aurpegian idatzita dugula abiatzen garelako.

– Iturri Handiaren bila gabiltza –hizkera ere erabat arrotza zen, ez zuen kolorerik, inongo kutsu ezagunik, Akademiren batetan ikasitakoa ematen zuen edo konputadoren bitartez, halere tipoa, hitzegiten zuen bakarra, ziurtasun handiz mintzatzen zen, jarioa berez omen zetorkion.

– Iturri Handia? Hemendik jarraituz Apaingo iturritxoa besterik ez dago, ezta?

Eta Andresek begiratu egin zidan babes bila ibiliko bailitzan, baieztapena behar, bere iritziak, gizon haiek kontutan hartuko balute.

– Bai, bai, Apaingoa, txiki-txikia da, gainera. Halere, bideko hautsak astindu eta zuek eta zuen zaldien egarria asetzeko beste.

– Ez gaituzu egarri, adiskide, eta bere horretan jarrai dezala Apaingo iturritxo xarmantak. Hemendik Iturri Handira iristen delakoan gaude –hitzok irakasleren batek edota edozeinek gutxiago dakien batekin erabiltzen duen eroapenaz betetako tonoaz esan zituen, halere bakoitzari berea zor zaio eta umil agertzen zela esan behar.

– Ez ba, ez dagoela, nik uste... baina bueno, igual... zuei... beharbada, beharbada... –urduri zegoen Andres.

– Ia laster iristen zareten, orduan. Lehorte latz honetan ez al zen sekatuko, baina?

– Iturri Handia lehortean sekatu? Ez, ez, erabat bestelakoa da gertatu dena, bueno, bagoaz, agur!

Harrapaladan abiatu ziren, Andres eta biok elkarri begiratu genion, lagunaren presentziaz normaltasun ttantto bat ikusi nahian, nonbait.

– Hau duk hau, Rafa! Iturri Handia delako baten bila omen doazen hiru zoro! Ni behintzat Afari Handiaren bila niek, ba al hator?

– Andresek errez uxatzen zituen arazo eta kezkak, edozeri tripa ondo betez egiten zion frente, baina bueno, zer egin behar genuen, bada?

Lehengoarekin salto batean atera nintzen ohetik. Zer ote zen danbada ikaragarri hura? Etxea eta inguru guztia dardar batean zerabilen trumoi, kainoikada itzela edo auskalo zer batek. Leihoratu nintzen, Andres ikuilutik burrunban irtendako animaliak harrapatzeko ahaleginetan ari zen, desmadrea erabatekoa zen, gure abere guztiek seguru asko gizakien hizkuntzan «Jainkoa» izango zen zerbait zioten, txioka, intzirika, orruka. Oilo batek arraultze-misil bat errun zuen, misil ziztu bizian irten ziolako diot, eta gainera aidean zihoala lehertu egin zelako. Bonbilak ere horretan hasi ziren, lehertzen, ateak danbaka, koadroak erori, pelikuletan sakoneko kargek jotako submarinoetako larritasunak zetozkidan, eta kolpe hoiek! Ez naiz forjari baina ezin insoportableagoak izan matxinoek emandakoak,

ama! Burua ere arraultzearen antzera kraskatuko zitzaidala pentsatzen nuen! Gau izartsua genuen egun famatu hartan, baina arraioa! Laister izkutatu ziren izarrak plazaratu zen hodei andana galantaren gainetik eta berehala... euria! Zaparrada eder batek eroso zion, juxtu-juxtu kainoikaden amaierarekin batera, eta ni, Andres, oiloak, konejuak eta Eztitsu, gure behi maitea, den-denok hainbestetan desiatutako ur freskotan jira ta bira hasi ginen. Andresek guretako baten ezkontza egunerako Burdeos botila ireki zuen eta ederki busti ginen kanpotik eta barrutik. Goizalde zoriontsua izan zen hura.

Berdetu eta edertu egin ziren inguruak, dana biziago zegoen hurrengo egunean, bazkalondoan gure «erregeak» Apaingorako bidetik honuntza ikusi genituenean. Motel zetozen, neka-neka eginda itxuraz, ileak narras, jantziak hautsez, baina alaitasuna begitartean. Nik ekin nion oraingo honetan:

– Kaixo jaunak, zer berri? Ailegatu al zineten? Aurkitu al zenuten?

– Kaixo, adiskideok, bai, aurkitu egin genuen Iturri Handia, ondo kostata, dexente urruti bait dago. Lana bukatuta etxe aidera goaz.

– Zein aldetan bizi zarete? –jakin minez nengoen.

– Haruntza segi eta... bueno... handik, urruti, bueno, bagoaz, agur!

Eta betiko agur. Gauza bati erreperatu egin nion, ordea, mailutzarraren burukotea maila-maila eginda zegoen, neurriko kontrarioa irten zitzaion, nonbait.

KOMUNIKAZIO-ARAZOAK

Zenbaitetan gertatzen da eta zer egingo dugu, hain ederki gaude lo ezen ez bait gara inolaz ere behar den orduan esnatzen. Guk lo jarraitzearen ondorioz gauza asko gerta daiteke, erita lanera berandu iristeagatik, adibidez, bazkaria erre, laguna haserretu emandako plantoiagatik, jendea gosaldu gabe geratu guk normalean partitutako esnea falta delako etabar. Edo ezertxo ere ez, premiazko eginbeharrik ez badago, Munduaren ekinean zeregin garrantzitsu gabekoak baldin bagara, ametsari ustekabean erregalatutako denbora horregatik, ba ez da seguru asko ezer graberik pasako. Egunen batetan, ordea, Eujen izan zen lozorroan iraun zuena eta batzuentzat eraginkorra izan zen, erabatekoa.

Zera zen Eujen ofizialki: «Komunikazio Saileko Hizki Horniketaren Arduraduna» izen ponposoa, ezin ukatu. Ezin esan lan gogorra zenik ere, goizeko bostetan hasi eta seiak arte, ordubetez, beraz, iharduten zuelako. «Letrototala» izeneko makina zen bere tresna, honek mota guztietako

letrez betetzen zuen giroa, eta letra hauexek doinuz jazten zituzten gizakien eztarrietatik sortutako asmoak, gure ohizko hizketa entzungarri bihurtuz. Egun horretan, hobeto esanda, aurreko egunaren zortziak aldera hasiko zen Daniel eta Juan Mariren arteko eztabaida, beste bat zerrendan, bi lagunak berritsu hutsak, harroskoak eta egoskor paregabeak zirelako. Soro ederra edozein huskeriagatik diskusio gogorrak haz zitezen. Sutsu eta trumoitsua ordukoa, zera zela eta hasi eta gauzak elkarri lotuz segi eta segi, segi eta segi, futbolaz, desarmeaz, Esperantza Agirreren edertasunaz, mejikanoen alperkeriaz, alkohol eta drogetaz, eguraldiaz, gaztediaz, haien eztabaidetaz, izan diren eta diren auzi eta katramila guztietaz. Goizeko laurak aldera hasi zen gaiztotzen asuntoa:

– Onar ezak, Juan Mari, gauza ez duk hik kontrako iritziak dauzkaala, baizik eta pentsatzen duana pentsatzen duala neri kontra egiten didak, benetan gustatzen zaiana horixe duk eta!

– Ezetz ba! Zera duk gertatzen dena, hire iritziak bezalako astakeriarik ez dela sortu orain-

dio! Nik kontrakoak edukitzen dizkiat pertsona normal bat naizelako!

– Aizak, anormal esaten al didak?

Bitartean lo seko zegoen Eujen eta ordu kritikoa iritsi zen, bostak, eta makina, «letrototala» geldirik. Eta noski...

– Aizak, Daniel, h-la j-r-it-en b-du has––tu e––o naiz!

– B-h-s –di!

– ––m ––txo–

– k––oi––z

– ––

– ––

Letrarik ez. Momentu horretan Eujen laborategiko atetik sartzen zen, etxetiko bidea izerdi patsetan eginda, eta «letrototala»ri eragin zion, baina urduri, gehiegizko potentzia eman zion, eta hauxe izan zen Danieli ezpainetatik sortu zitzaion jarioa:

– Mjgutjneidjfhgbeoiuhgfrtyudxseamkiopytrenhgbvfgvrdewstyuit!

Daniel eta Juan Mari erdi mareatuta zeuden honez gero, eztabaida moztu behar izatearen frustrazioa lehenik, paperak aurkitu eta idatziz elkar iraintzea gero (guzti hau mehatxu-jestuz eta bisiguen moduan ahoa irekiz) letra-zaparrada hori hirugarrenez, enfin, hori ez zela diskutitzeko giroa. Azkenean Eujenek asmatu egin zuen eta letrak egokiro bidaltzen hasi zen, neurriz eta juxtu.

– Juan Mari, tonto hutsa naiz –moldatu zuen Danielek eztarritik gora zetorkiona.

Eta Juan Marik isil-isilik, letrarik batere gastatu gabe, muturreko bat eman zion.

SUDUR HANDIKOEN KOMERIAK

Bazen behin, Keniako sabana zabaletan, Tontopof izeneko elefante bat, izenak adierazten duenez adimenaz soberan ez zebilena.

Egunen batean, elefanteen ohiturei jarraituz haren tronparen laguntzaz belarra jan eta jan ari zela, txingorri-jale hartz bat inguratu zen, hau ere sudurluzea, jakina, eta txingorriek markatutako bideari segika, txurrup-txurrup, hamaiketako ederra egiten ari zena.

Hura urrundu orduko Tontopofek, bere harridura lau haizetara zabalduz:

– Hori trebetasuna horrek daukana! Hori egiteko kapaza izan nahi nuke! Ahaleginak egingo ditut, ze arraio!

Haren saldokideak ziren Patxak, Haunditz eta Dunfo, hau entzunda, agure zuhurren antzera buruak aide batera eta bestera mogituz, Tontopof piska bat argitu nahian hasi ziren:

– Ez hadi ergel izan! Dela miloika urte belarjaleak gaituk!

– Ez hadi txoru izan! Daukaan enbor horrekin nola demontre nahi dituk txingorriak harrapatu?

– Ez hadi tontolapiko izan! Irentsiz gero ere azkure ikaragarri bat izango duk lortuko duana, inongo elikadurarik ez eta bai arazo franko!

– Isil zaitezte, pakidermoa alenok! Nere trebetasunaz Sabanako biztanlegoa txundituta utziko diat!

Eta hau esanda, dijnitate itxura ikaragarriak hartuz, txingorriak bilatzeari ekin zion.

Baita azkar aurkitu ere! (Izan ere, Afrika txingorriz josita dagoela zuntzunenak dakien zerbait da) Berehalaxe langile porrokatuek haien ibileran egindako lerro etengabea somatu eta hanken artean hartuta, indar guztiaz zurrupaka hasi zen. Segituan, aspiradore horren ahalmenaz txingorri-metro batzuk egin zituen eta pozaz zoratu beharrean lagunengana itzuli zen.

– Lortu diat, lortu diat! Afrikako elefanterik azkarrena nauk!

Lagunek behiek trenari bezala begiratu zioten, molestatu besterik egiten ez duen zerbaiti bezala, alegia.

– Hi erotuta al hago? Ergelkeria hori egiteagatik hire burua azkarrenatzat hartzen al duk? Babu arraioa!

Tontopofek inbidia zer den ia ba al zekien galdetu behar zion, baina orduantxe gudaroste txiki baina ekinkor bat martxan jarri zitzaion barrenetan.

– Uuuii, egon, egon, a, ez zekiat zer gertatzen zaidan, oooh, hau ondoeza sentitzen dudana! –Hau esan eta loteria ateratakoaren antzera saltoka hasi zen, txilipurdika larretik, aurpegia more-more jartzen zitzaion bitartean.

– Amatxo maitea! Kilimanjaroko Birjina! Hau mina! Hau lehertu beharra! Hau azukre ikaragarria!

Gainontzekoek paso egin zuten Tontopofen arazoetaz baina Dunfo errukitu egin zen:

– Noski! Hire urdaia ez zegok txingorriak dijeritzeko egina eta hor ari zaizkik jo ta fuego!

Ez dago etsai txikirik, Tontopof honez gero etsi-etsi eginda zegoen, Masaitarrei ikasitako

tako guztiak errezitatu zituen, baina sufrimenduak tinko zirauen.

– Ezin diat jasan! Hil egingo nauk!

Dunfok orduan pelikula hartan Charlton Hestonek egindakoa gogoratu zuen, Marabunta, txingorri-oldar ikaragarria, nola menperatu zuen, hain zuzen ere. (Dunfo oso zinezale zen, batez ere Buster Keaton atsegin zitzaion).

– Ura edan ezak, ito itzak maizterrak!

Hau entzunda, aintzirara zeuden bi kilometroak hamazazpi segundotan korritu eta Tanganikaren ur lokaztuetan murgildu zen, hipopotamoak dexente harrituz. Kontatzen dutenez, geroztik txingorri bat ikusi orduko harrapaladan ospa egin edo zuhaitzetara igotzen zen, «urrundu, urrundu, nazkagarri hori!» ozenki oihukatuz.